

45

GURE EGITURA POLITIKO BATZUEN EUSKAL IZENEZ

Euskaltzaindiari aspalditik egin zaizkio galderak eguneroko inhardueran asko erabiltzen ditugun zenbait hitzi buruz. Horien artean sartzen dira izen ofizial batzuk, hala nola, *Nafarroako Foru Komunitatea*, *Euskal Herriko Autonomi Elkartea*, *Europako Ekonomi Elkartea*, e.a. Hitz hauekin behin baino gehiagotan sortu izan dira kezka idazlecn eta kazetarien artean ere.

Oro har, bada zerbait harrigarria Nafarroako eta mendebaldeko hiru herrialde historikoetako eskaldunak kontu hauetan bat ez gatozenez: gauza bakarra adierazi nahi denez, bi izen erabiltzen dira inolako premiarik gabe, batean *komunitate* deitzen zaion bitartean (*Nafarroako Foru Komunitatea*), bestean *elkarte* esaten baitzaio (*Euskal Herriko* —edo *Euskadiko*— *Autonomi Elkartea*). Bada hemen, Euskaltzaindiaren ustez, zerbait zuzentzekoa.

Elkarte hitza da azken urteotan gehien erabili izan dena *komunitate* erdal hitzaren ordainez, XIX. mendean Europan sortu zen *komunitate* kontzeptua adierazteko; baina *komunitate* hitza, erdal hitza baldin bada, *elkarte* hitza, ostera, orokorregia da eta zabalegia, parean jartzen baititu, azken batean, “muslarien elkartek”, “Europako elkartea” eta “Euskadiko elkartea” ere, horiek ezin direlarik, inola ere, maila berean jarri. Bistan da kantari batzuen elkartek maila apalagoa duela Euskadikoak edo Europakoak baino.

Batasuna nahi badugu, eta Euskaltzaindia hizkuntzaren ikuspuntutik bakarrik mintzo da, hitz bakarra bultzatu behar dela dirudi. Eta hitza bilatzeko orduan, badirudi, euskarak duen altxor aberastean bilatu beharko dela.

Bada hor oso ongi egokitzen den tradizio handiko hirugarren hitz bat, erdarazko *komunitate* eta zabalegia den *elkarte* hitzez bestelakoa: *erkidego* da hitz hori, Espainiako Konstituzioaren itzulpenean ere esanahi honekin erabili izan dena (*komunitate politikoa* adierazteko) eta arazoa konpon lezakeena. Hitz honek bereiziko litzuzke egunoroko *elkarte* arruntak eta politika mailakoak. Hortaz, hitz hau erabili beharko litzateke *elkarte* hitzaren ordezk *komunitate politikoa* oro har adierazteko.

Bestetik, Euskaltzaindiak aukeran utzi bazuen ere *autonomi* nahiz *autonomia* erabiltzea hitz elkartetan, kasu honetarako *autonomia* hobetsi du. Aldi berean, *Euskal Herri* eta *Euskadi* baino egokiago ikusten du *Euskal* hitza erabiltzea. Proposamen honek, bere osotasunean harturik, gainera, ez litzuzke egungo siglak aldatuko EAE-ren kasuan.

Beraz, hauek dira Euskaltzaindiak gomendatzen dituen izen ofizialak, hitz hauek Euskal Herriko hiru eremu politikoetan oinarritzen direlako eta bi erkidegoen arteko hizkuntzaren batasuna bultzatzen dutelako:

Nafarroako Foru Erkidegoa

Euskal Autonomia Erkidegoa.

(Euskaltzaindiak, Usurbilen, 1995.eko irailaren 29an onartua)